

ITSASERTZA

BIZKAIA



B•9 Otoiko Mendia eta itsaslabarrak

Otoiko mendia kostaldearen mugan bertan altxatzen da, Ogellako hondartzaren eta Santa Katalinako lurmuturraren artean, eta tontorretik euskal itsasertzeko zati horren ikuspegi zabala eskaintzen du. Hegoaldeko mendi- hegala leunagoa eta hurbilerrazagoa da eta, horregatik, bertako landaredia anizkunagoa da eta oihaneztatuago dago. Iparraldeko mendi- hegala, aldiz, bat- batean jausten da itsaso gainean, horma malkartsuak eratuz; horietan jatorrizko artadi trinkoaren eremu handi samarrak gordetzen dira, sasi eta zuhaixka ugarietz itxirik. Gune horrek duen arrisku nagusia suteak dira, baina baditu beste batzuk ere Lekeitioko hirigunea oso hurbil dagoelako, esate baterako, zerrategia.



B•10 Leako itsasadarra

Leako ibaia Lekeition itsasoratzen da, eta edertasun handiko itsasadar txiki bat osatzen duten meandro motel batzuk eratzen ditu. Bertako lezkadi, lohi eta ihitokietan Lumentxako muinoaren oinaldean elikatzen diren anatido, lertxun eta uretako beste hegazti asko bizi dira. Lumentxako muinoa Lekeitioko hirigunean guztiz sartuta dago ia, baina artadi kantauriarraren lagin on bat gordetzen du. Mari Errotako errota zaharraren presak, antzinako artisau-ontziolak eta Zubieta zubiak osatzen duten multzoak balio historiko eta etnografiko handia du; izan ere, eta duela ez asko nagusiki marinel-eremua zen inguru honetako bizimoduaren lekuko fidagarria da.